

www.noaia.com

# Noaia!!!



“Hiru andreren konfesioak”,  
igande honetan Sutegin



Hilabeteetako mobilizazioen ondoren,  
lanera itzuli dira Ingemarreko langileak



# Otar-Goxo

Elkagaiak



## Hirukide elkarteko kide diren familientzat... **%5 EROSKETA GUZTIETAN!**

harategia · urdaitegia · frutak · barazkiak · kontserbak · berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

# etxeko txikientzako

behar duzun guztia

## ALKARTASUNAN



Lekualdatzeko, oheak..



Arkakusoen aurka



Parasitoen aurka



Xanpuak



Janaria goxokiak



Jostailuak

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASEPENA HERRIK BIZIRIK

alkartasuna@usurbil.com | Ugarte industrialdea 12 ☎ 943 361 114


Albisteak iruditan !!

## Burdinezko tranpak Andatza inguruan

**A**ndatza mendian zegoen burdinezko tranpa hau lurrian estalia. Baina ez da bakarria izan. Antzeko gehiago aurkitu dituzte. Udaltzaingotik adierazi digutenez, "dirudienez motorrei kalte egiteko dira, baina oinezkoentzat arrisku izugarria dute".

"Moto Verde" aldizkarian artikulua agertu zen antzeko argazki batekin, eta hauen arriskuaren berri emanez. Argazkian dagoena, udaltzainen bulegora herritar batek eramandakoa da.

Beraz, kontuz ibili beharko da Andatza inguruan. Norbaitek honelako tranparen batekin topo egiten badu edo zerbait baleki "gurekin harremanetan jartzeko" eskatu dute Udaltzaingotik.



UDALTZAINEK HONAKO HAU JASO DUTE BAINA GEHIAGO JARRI DITUZTE. TRANPA HAUEK OINEZKOENTZAT ERE OSO ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKE.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Ateaz ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendurako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Lanean hasteko garaia

**A**maitu da festa. Lanean hasteko garaia da. Lagun Abati entzundako esaldia da.

Tsunami batek astindu zuen maiatzaren 22ko hauteskunde gaua eta, geroztik, asko eta asko noraezean dabil-tza oraindik. Gertatutakoa ezin ulertu. Ezin asmatu.

Urte luzez euren aukera bozkatzeko modurik izan ez dutenek, ordea, jaigiroan ospatzeko motiborik bazuten. Maiz esan den arren, komeniko litzateke gogoraraztea orain arteko argazkia okerra izan dela toki askotan. Are gehiago, hauteslegoaren zati bat ordezkaturia izan gabe jarraitzen du hainbat instituzioetan.

Ez da Usurbilgo kasua izan. 2007ko udal hauteskundeetan aukera guztiak bermatuak izan zirelako hemen (ez ordea, beste herri batzuetan). Baina zaila da ulertzen, azken lau urteotan udal gobernuan izan direnak zergatik lau urte hauen ondoren ezin izan duten aukeratuak izan.

Ez da bidezkoa. Hitzaren garaia da. Politika egiteko

garaia. Hala diote. Horregatik, are ulergaitzagoa da. Beno, hori eta beste gauza asko ere. Baina antza denez, haizea dabil etorkizunaldetik. Garai berriak datozela eta geldiezina dela. Hala diote adituek. Denborarekin konponduko al dira ulergaitz egiten zaizkigun gainontzeko gauza denak...

Bestalde, puzzle politikoa nola osatuko den interesgarri dago oso. Bereziki Donostian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Ikusteke dago botereari lotuta egon direnak nola egokitzen diren auto ofizialik gabeko garai berrietara. Eta orain arte boterea borrokatzen aritu direnak (*fight the power* ingelesez) nola moldatzen diren ardura berrietara. Batzuk eta besteek, badute zer ikasia.

Baina hori gutxienezkoa da. Egoera zaila bizi dugu. Finantza kapitalismoak eragindako krisitik atera ezinik gabiltza. Horregatik, hasi bezala amaituko dut: *amaitu da festa, lanean hasteko garaia da.*

Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - **Imanol Ubeda** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

## Herri batzarra eta beste

**K**aixo lagun! Udal eta foru hauteskundeak pasa berri ditugu, eta dagoeneko inork ez du zalantzan jartzen Bildu koalizioak lorturiko emaitza ikusgarriak. Beraz, aurrera egin aurretik, zorionak eta eskerrak asko guztioi!

Hamabost egun igaro dira orduz geroztik, eta emaitza bikain horien balorazio sakona egiteko ordua iritsi da. Gutun honen bidez ostiral honetan, hilak 10, Artzabalen egingo dugun

batzarrera gonbidatu nahi zaitugu. Batzarra 19:00etan hasiko da.

Bestalde, gutun hau probestu nahi dugu gogorarazteko larunbat honetan bertan, hilak 11, udal osoko batzarra izango dela, udal korporazio berria osatzeko. Alkate eta zinegotzi berriak izendatuko dira. Plenoa 12:00etan izango da, eta denoi bertaratzeko deia egiten dizuegu udal gobernu berriari harrera egiteko eta gure animoak igortzeko. Plenoa bukatuta, dema plazan ekitaldi

txiki bat egingo da orain arteko zinegotziak eta alkatea agurtzeko, eta, ondoren luntx bat eskainiko da. Festa giroan emango diogu amaiera orain arteko legegintzaldiari eta ongi-etorria eman-goto diogu berriari.

Besterik gabe, hurrengo egun haue-tan ditugun hitzorduetara hutsik egingo ez duzulakoan eta bertan ikusiko garelakoan, eskerrak asko.

**Usurbilgo ezker abertzalea**

ZUBIALURRENEA4, USURBIL  
ileapaindegi  
mistoa  
943361951

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

Josue  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Ingemarreko langileak lanera itzuli dira

**M**aiatzaren 31n burutu zuten asanbladan, Ingemarreko langileek amaitutzat eman zuten 87 egunez burutu duten greba mugagabea. Langileak lanera itzuli dira, enpresako zuzendaritzak aurrera begirako konpromiso zehatz batzuk hartuko dituela dioen dokumentua aurkeztu dietenean. Greba amaituta, langileek kaleratu berri duten komunikatuaren bidez, eskerrak eman nahi dituzte hilabeteotan elkartasuna adierazi eta laguntza eskaini dieten guztiei.

Usurbilgo plantak industria gune izaten jarraitu dezan bermatu eta lanpostuak defendatzeko Ingemarreko langileek 87 egunez burutu duten greba bertan behera uztea erabaki zuten, joan den astean burutu zuten batzarrean. Hedabideetara helarazi duten komunikatuan berri eman dutenez, lanera itzuli dira langileak, enpresako zuzendaritzak aurkeztu dien dokumentua onartu ostean. Bertan, konpromiso sorta hartzen du Ingemarreko zuzendaritzak.

## LANPOSTUEN DEFENTSAN

“Etorkizunean, enpresak kaleratze traumatikoen bidea hautatzen badu, kalera irtengo gara berriz ere”

Langileen Batzordeak aipatu zazpi puntuko testua betetzea bermatuko duela iragarri du. Baina ohartarazi dutenez, “etorkizunean, enpresak kaleratze traumatikoen bidea hautatzen badu, kalera irtengo gara berriz lanpostuak defendatzeraz”.

## Esker oneko hitzak

Enpresako zuzendaritzak 60 langile kaleratu nahi zituela gogorarazten dute langileek. Baina “Ingemarreko lan taldeak mantendu duen borrokatik, Lan Ordezkaritzak 30 kaleratzeekin ebatzi zuten EREa, 2011ko uztailaren 31 arte onartua zegoen etendura EREa albortuz”.

Esker hitzak helarazi nahi dituzte lan-



HILABETE HAUTAN, MOBILIZAZIO ASKO EGIN DITUZTE LANGILEEK.

gileek, “borroka luze honetan elkartasuna adierazi diguten guztiei, eta bereziki, lan taldeari laguntza eskaini dioten usurbildarrei”. Herritarrei, Udalari, eurekin egon diren alderdi politikoei, tabernariei edota aldizkariari.

## Hartutako konpromisoak

Hauek dira Ingemarreko zuzendaritzak hartu eta langileei aurkeztu dien dokumentuan biltzen diren konpromisoak:

-Usurbilgo plantari jarraipena ematea eta lantegia produktuen komertzializatzaile hutsean ez bihurtzea.

-2012-2014 urte arteko plan estrategikoa aurkeztea eta Langileen Batzordeak horren inguruko jarraipena egitea.

-Langile-soberakina egongo balitz, negoziazioetan lehentasunez, aurre jubilatze eta irteera boluntarioak proposatu beharko ditu.

-Eboluzio ekonomikoaren menpe, akordio batera heltzeko aurre jubilatze adinean dauden langile guztiekin negoziatuko da.

-55 urte betetzeko bezperetan zirela, kaleratuak izan ziren bi langilerentzat lan hitzarmen berezia planteatuko da.

-Kaleratzeengatik oraindik ordaintzeke dituen kalte ordainak, beranduenez irailaren 30a baino lehen abonatuiko ditu.

-Azken hilabeteotan langileek buruturiko greba eta ekintzengatik enpresak ezin du errepresaliarik hartu.

## Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzak

Usurbilgo Udalak berri eman duenez, ekainaren 1ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak eskatzeko oinarriak. Eskatzaileek ezingo dute zorrik izan Usurbilgo Udalarekin eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, nahiz egitasmoa baloratzeko behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaien:

-Diru-laguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).

-Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina).

-Eskatzailearen NANaren fotokopia.

-Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio).

-Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria. (III. Eranskina).

-Elkarteak ez duela inor baztertzen adierazten duen agiria (IV. Eranskina).

-Estatutuak.

-Banketxe edo aurrezki erakunde batek emandako agiria, non eskaera egin duen erakundea kontu korronte baten titularrak dela ziurtatzen den.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Aukeratu ezinean... amaitu



**H**au da marka, lerro batzuk idazten jarri eta ezin gaia aukeratu! Hauteskundeak direla eta idatziko dut? Ba, zertarako? Sekula baino gehiago, ezertarako balio izan ez dutenaren sentsazioarekin nago eta; han hemenka botorik gehien atera dutenak ez omen dira agintean arituko beste alderdiek bat egin eta gehiengoa lortzen dutelako. Edo, asteazkenetako azokan lez, regateoan dabilta esanez “nik honako hiru Udal hauek uzten dizkizut baldin eta zuk halako uzten badidazu”. Pasa den egunean nire ilobarekin berriketan esaten zidan: “izeba, orain alkatea halako izango dela esan didate”. Eta hori oraindik ikusteke zegoela erantzun nionean, berak: “ba orduan, ez dut ulertzen. Ez al ditu ba berak atera botorik gehien?” Eta nik ere ulertzen ez nuela esan eta gaiaz aldatzea erabaki genuen. Uda usainaren inguruan arituko naiz agian. Hasiak dira jada gereziak gorritzen inguruko zuhaitzetan. Ze oroitzapen ederrak, zuhaitzetara igo, majo tripa bete eta gutxi batzuk poltsan sartu ostean behera jaitea. Eta ez hori bakarrik, gereziak gorritzeak oporren usaina ekartzen zuten eta nik uste horrek oraindik are eta zapore ederragoa ematen ziela. Ez dakit egun gazte askorik ibiliko ote den zuhaitzera



igo eta gereziak biltzen baina kontua da oporrak behintzat gertu dituztela... Amaiera berehala! Gozatu bada oporrak. Ah, agian jaien inguruan ariko naiz. Urteroko usadioari jarraituaz herriko lehen jaiak gure auzokoak izaten dira eta jakin badakit buru belarri dabilzala gazte zein helduak jaiak antolatzen. Animo denoi! Aurten ere nahi eta ahal duenak izango du aukera festan ibiltzeko. Eta hara, gaia aukeratzearako, dudan tartea agortu ez dut ba! Ondo izan eta udari sarre-ra ona egin!

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Antivirusak



**G**auza jakina da ordenagailuentzat antivirusak saltzen dituzten enpresak berak direla birusak sortzen dituzten hackerrak.

Halaxe deitzen zaie, hacker, ordenagailuetako programatzaile edota teknikari trebeci. Eta tartean batzuk antivirus enpresetan daude birusak sortzeko lanean.

Birusak sortu eta birus klase hori ongien garbituko duen antivirusarekin erantzun. Salmentak gora eta diru-irabaziak gora.

Hurrengoan, beste birus klase bat, beste antivirus bat eta, berriz ere, diru-irabaziak salmentak adina. Horrela, etenik gabe, antivirusa ez, beste ordenagailu bat erosi arte.

Gaur egun, zaila da jakiten gizakiarengan azken urteotan sortu diren gaitz kopurua eta motak zeintzuk diren. Hala ere, birus bakoitzak badu bere nola-baiteko txertoa. Ez dio ajola, nonbait, gaitz horren sorburua non dagoen ikertzen ez bada; gaixotasunari gero arte bakarrik esanda, diruak agur egiten baitu.

SANTUENEA

JON ETXABE

## Agur unibertsalaren bila

**M**undu guztian balio lezakeen “kaixo” baten bila nabil, agur unibertsal modukoaren bila. Nori ez zaio gertatu ezezagun batekin agurtu eta hizkuntzaz nahastea?



Hasteko nahiko arazo da kaixo edo agur esatearen artean aukeratu beharra izatea, Murphy-ren lege antzeko batengatik edo, “apa” esaten duzun bakoitzean “aio” batekin erantzuten dizute, horrelakoetan hitz neutro bat erabil daiteke, “ei” adibidez, eta modu horretan, hanka sartzea ekidin.

Bestalde, lehenengo itxurak asko egiten du: honi euskaraz, bai, “kaixo!”. Erantzuna? “¡adios!”.

Bestela alderantziz. Ziur egoteko egoera bakarra auzoko betiko jendearekin topatzea da.

Inolako arazorik egon ez dadin, proposamen berri bat daukat zuentzat, hitz berri bat asmatzea, “kaixo”, “agur”, “hola” eta “adios” ordezkatzen dituen... “Bitze”, adibidez? Edo... “Souk”? ez dakit, aukeratzea zuen esku utziko dut.

Dena den, beti erabil ditzakegu Usurbilen ondo ezaguna den “NOAUA!!” edota betiko norbere buruaren mugimendua, irrifar batekin lagunduta.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Martxa



**U**da usaina hemen da. Eta jendea martxa-gogoz dago. Tabernetako eta etxeetako terrazak animatzen hasi dira, bateko izozkiak eta besteko kopak.

Eskola txikikoak hor dabilta, bere kultur aste eta gamusino-gauekin, umeak bere antzerki, koreografia eta erakustaldiekin...

Aitzakiaren bat jarri behar eta 1974 urte gogoangarrian jaio zirenen kinto-bazkaria ere antolatzen hasi da Bakartxo (badakizue...).

Zubieta Lantzen biziberritzera etorri direnek ere, a zer martxa duten: duela bi aste askoren kontzientziak mugiarazi dituen Jon Sarasuaren hitzaldia antolatu ondoren, ekainaren 17an Ion Martinezek eta Saioa Royok "Ispilua" bikoteei buruzko antzezlan probokatzailea ekarriko digute Kaxkapera.

Eta probokazio eta martxarako azken proposamena, Inma Arroyorena: hilabete barru, herriko jaien barruan, uztailearen 24rako, iganderako, dantzaldi-koreografia lehiaketa antolatzen ari da, alegia, "Arrastaka Operazio" tankerako bat.



Epai-mahai eta guzti, ume, gazte eta helduentzako sari-potoloekin, eta, hori bai, katxondeoa ziurtatuta, Tolosan ospatzen diren inauteri ezagunak ere atzean utziko ditugu.

Beraz, badakizu, bakarka edo taldeka (gehienez ere 5), nahi duzun musikarekin koreografia eta mozorroa landu... eta ikuskizuna ematera!

Alkatesarentzat ere aukera bikaina bere jendaurreko lehen agerpena egiteko... Izena emateko, deitu 626 735 354 telefono zenbakira (Inma).

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

## Denbora...



**7**:00. 14:10. 20:48. 00:30. Goiz? Berandu? Eguerdia. Gaua. Arratsaldea. Tik tak. Erlatiboa izan ohi da. Ordu bat. Ez dira beti 60 minutu. Urte bat. Ez dira beti 365 egun. 10 urte. Hamarkada bat? Uztaila.

Urria. Gabonak. Udarako oporrak. Beste urte bat. Beste bi. Duela bost. Hemendik bost? Tik tak. Egunetik egunera azkarrago pasatzen da. Astelehena gaur. Ostirala bihar. Asteburua, 100 metrotako sprint bat, 9.79. Hurrengo asteburua? Sagardo eguna. Santixabelak. Atxegaldeko festak. Gabon gaua. Inauteriak. Sagardo Eguna berriro. Bis. Bis. Bis. Bis.

Atzo Udarregiko patioan jolasten. Gaur astelehena, laneguna, 6:20an despertadorea, ring! Beste egun bat!. Bihar Atxegaldeko festetako txosnan lan egiten. Atzo gurasoen etxean. Bihar nirean. Etzi gurean? 28 urte Atxegalden. Beste 28 urte non? Tik tak, tik tak.

Denbora abian da, denbora joan eta etorri dabil. Denbora ez da agortzen. Denborak irensten gaitu. Denbora irensten al dugu? Denborak menpean gaitu? Gelditu, ikusi eta ikasi. Aprobetxatu, bizi eta gozatu.

AGINAGA

M<sup>A</sup> ANGELES ARRUTI

## Lehen jaunartze eguna

**J**oan den igandea egun alaitsua izan genuen Aginagan, gure arteko lau gazteren lehenbiziko Jaunartzea izan baitzen. Eguraldiak lagundu zuen. Ospakizun ederra eta gogoan hartzeko modukoa izan zuten Angelok, Alaitzek, Mirenek eta Ioritzek. Ezin dut aipatu gabe utzi Angelo Ekuadorreko Machala herrikoa dela, nahiz urte batzuk hemen eraman bere amarekin batera eta euskaraz oso integratua egon. Miren eta Ioritz Tenerifen jaiok dira, aita dute aginagarra eta peto-petoa gainera. Bere nahia lau seme-alabei bere sus-traiak eta kultura erakustea zen. Eta ikusi besterik ez dago, Jaunartzea egitea hona etorri dira. Ikerrek eta Loreak ere hemen egin zuten ospakizuna eta gainera, Lorea hemen bataiatua da. Aipatu ere beraien ama, Mari Karmenek oso gustukoa duela Agiña eta Euskal Herria. Lerro hauen bidez muxu haundi bat denontzat. Adibide ederra erakusten digute hemengo askori. Zorionak!



## Ehunetik gora erabaki hartuta itxi du udal gobernu taldeak 2007-2011 legegintzaldia

**L**egegintzaldi batek askorako ematen duenez, ez da erraza guztia laburbiltzea. Horretan saiatu da ordea, alkatetza uztear den Xabier Mikel Errekondo. 2007az geroztik burutu dituzten proiektu bat baino gehiago aipatzen ditu lerrootan, baita gauzatze bidean direnak ere, etorkizunerako zenbait erronka proposatzearekin batera. Hauteskunde programan jasotako egitasmoak beteta amaitu dutela adierazi du Errekondok. Hemen aipatzen diren hainbat proiektu horren guztiaren adierazgarri da.

Alderdi bat edo gehiagoren babes jaso-tako ehun erabaki baino gehiago hartuta borobildu du gobernu taldeak 2007an hasi zuen legegintzaldia, larunbatean alkatetza utziko duen Xabier Mikel Errekondok gogorarazten duenez. Legegintzaldia beste modu batean hasi zuten ordea. Errekondoren esanetan, dinamikarik gabe eta geldialdi egoeran zegoen Udala, duela lau urte gobernu taldera heldu zirenean. "Aholku Batzorde guztiak deseginda zeuden, ez zegoen dinamikarik", adierazi du Errekondok.

Heldu eta berehala, Aginagako Herri Ikastetxea, edota Errekondok dioenez, "ustez konpondua zegoen" Haur Eskolaren egoera izan ziren mahai gainean aurkitu zituzten lehen gaietako batzuk. Urte eta erdiko lanketaren ostean ordea, "oso ondo bideratutakoa". Batzorde informatzaileak ere osatu zituzten, zortzi guztira. 1.100 etxebizitza erakitzeke egitasmoarekin topo egin zuela ere gaineratzen du Errekondok, baina azkenean zentzugabetzat jotzen duen planteamendu hura gelditzea lortu zutela oroitzen du. Urte hartan, 2007ko udabe-



ATEZ ATEKOAREKIN HAINBAT LANPOSTU SORTU DIRA LEGEALDI HONETAN.

rrian Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzetan izen emateko zerrendak jarri zituen aurreko gobernu taldeak, baina aipatu moduan, ez zen ezer egin gerora, "gaur egun ere ezin da zozketa egin", dio Xabier Mikelek. Beste hiruzpalau urte ere pasa daitezkeela ohartarazten du.

Hala hasi zen legegintzaldia. Hona hemen, arloz arlo alkateak egin duen errepasoa:

### Lanpostu berriak

Langabeziak gora egin duen urteak izan dira hauek. Etorkizunera begira Errekondok dioenez, "iraulteta bat izatea espero dut, lanpostuak sortzen joatea". Udalaren aldetik, bide horretan, lan deialdi publikoak kaleratuko direla iragartzen du. Hondakinen kudeaketari lotuta sortu diren zazpi lanpostu berriak ez direla bakarrak izango ere gaineratzen du Errekondok, bere esanetan, gerontologikoa irekitzen denean langileak behar-ko baitira. Bertan, herritarrak lehenetsiko dira.

### Berdintasuna

Berdintasun Planaren inguruan egin den prozesua garrantzitsutzat jo du alkateak. Berdintasun Planaren onarpena, alor honetako teknikariaren kontratazioa, eta erronken artean, besteak beste, parekidetasuna bultzatzeko elkarteetan burutu beharreko estatutu egokitzapenak aipatzen ditu.

### Euskara eta Kultura

Zerrenda luzean besteak beste honako egitasmoak aipatzen ditu; Kultura Aholku Batzordearen sorrera eta Plan Estrategikoa burutzea, herri eragile asko izatea, banatu diren diru-laguntzen gorakada, auzolana, herri dinamikoa izatea, bideratu diren ekipamenduak, sinatu diren hitzarmenak, euskaran buruturiko ekimenak (UEMA, Buruntzaldea, Behatokia...), antolatu diren ekitaldiak...

Garrantzitsutzat jotzen ditu, Laboa, Zumeta, Artze... Herri ondarea babestu eta indartzea alegia.

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pin txoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

**JE** **JON ELORZA**  
**IGELTSE RITZA**  
**OROKORRA**  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



## Etorkizunari begira, Usurbil 2020-2025 plana

### Hezkuntza

Lorpenen artean; 0-16 urte arteko hezkuntza integrala edota Hezkuntza Mahaia abian jartzea. Gune berriak sortu dira; Atallun Hasierako Lanbide Prestakuntzaren egoitza edota bidean den Udaregi ikastolako eraikin berria. Zumarte Musika Eskola egun Haur Eskola dagoen lekuan kokatuko da etorkizunean, Haur Eskola Agerialde ondora lekuz aldatzean.

### Hirigintza

Zenbait auzuneren eraberritzea bideratu dute; Muna Lurra eta Santuenekoa. 2013rako irekia egotea aurreikusten dute gerontologikoko lanak martxan dira. Kalezarko gune berrira igotzeko N-634 errepide paretik igogailua ere eraikitzeak dira.

Agerreazpi eta Sekaia eremuetan kokatuko diren etxebizitzak 2012ko negurako eskuragarri izango direla iragartzen du alkateak.

Aurrera begira, Usurbilgo etxebizitza arazoari aurre egiteko honako irtenbideak proposatzen ditu orain arte lanean izan den udal gobernu taldeak:

-Etxe hutsak kudeatzea; "140 inguru daude Usurbilen" dio Errekondok. Gogorarazten duenez ordea, legea Jaurlaritzak bideratu behar du.

-Alokairu soziala bultzatzen jarraitzea.

19 jarri dituztela diote udal gobernutik.

-Lokalak etxebizitzetan bihurtzeko onartua dagoen ordenantza, Errekondoren esanetan, "etxe duin eta merkeagoa izateko, eta erdigunean komertzioa babestuz".

-Etxe handiak bitan zatitzeko aukera.

-Babes ofizialeko etxebizitzak.

-Etxebizitza tasatuen ordenantza.

### Nekazaritza, Ingurumena...

Hondakinen kudeaketaren alorreko langetari segida ematearekin batera, osasun arriskuak saiheste aldera, alkateak gogorarazten duenez, "aire kalitate neurketak egiten jarraitu behar da. Ikuskaritzak egitera behartu behar da Jaurlaritza".

Beste hainbeste kutsadura elektromagnetikoaren gaiarekin ere. Nekazaritza arloan, beharrezko ikusten du ustiatzaile berriak babestea.

### Kirola

Oiardo Kiroldegiko taberna zabaltzea, edota kirol instalakuntzak handitzea legegintzaldian zehar burutu dituzten hobekuntza lanak izan dira. Errekondok aipagarritzat jotzen du baita, kirol arloko diru-laguntzak ehuneko ehuneko igo izana. Eta laster kirol taldeek izango duten tresna erabilgarria; web orri berria.



SEKAIAKO ETXEA 2012KO NEGURAKO EGONGO DIRA ESKURAGARRI.

### Komunikazioa

Andatza udal aldizkaria kaleratzea, baita Udalaren web orrialdea martxan jartzea ere. Alor honetan herrian hutsune bat nabari du, beretzat etorkizuneko erronka litzatekeena; Usurbilek irrati kate propioa izatea.

### Etorkizunari begira

Xabier Mikel Errekondok hau proposatzen du, etorkizun hurbilari begira:

Usurbil 2020-2025 plana: herritar, eragile eta Udalaren elkarlana proposatzen du, bere esanetan, alor desberdinetan "zer nolako Usurbil nahi dugun" erabakitzeke: hirigintza eta ingurumenean, garapen iraunkorrean, kulturean....

-Usurbilgo ondarea babestu eta sustatzea.

-Burujaibetza energetikoa eta elikadura mailakoa.


## Udalbatza berria larunbatean osatuko da

**M**aiatzaren 22ko udal hauteskundeetako emaitzak aintzakotzat hartuta, udalbatza berria osatzeko garaia heldu da. Hitzordua, larunbat eguerdiko 12:00etarako dago egina, udalbatzeko pleno aretoan noski. Gehiengo osoa lortuta, Bilduk hartuko du EAE-ANVren lekukoa eta Mertxe Aizpuruak Xabier Mikel Errekondok utzitako alkatetzat postua.

Sei alderdi politiko edota koalizio aurkeztu ziren udal hauteskundeotara: Bildu, Aralar, Hamaikabat, EAJ-PNV,

PSE-EE eta PP, nahiz azken honek ordezkari lortzeko adina bozka ez zituen jaso. Gainerako bost alderdiek bai ordea. Hamahiru udal ordezkarienezko lekua dagoela jakinik, modu honetan osatuko da udalbatza berria: zazpi udal ordezkari izango ditu Bilduk, bina Aralarrek eta Hamaikabatek, eta eserleku bana PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek.

Honenbestez, zazpi zinegotzirekin gobernu taldeak gehiengo osoz aginduko du datozen lau urteotan, eta gainerako alderdien artean banatuko dira beste sei eserlekuak.



GEHIENGO OSOZ BOZKATUA IZAN ZEN MERTXE AIZPURUAREN ZERRENDA.

# “Hiru andrearen konfesioak”

## Bakarrizketa sesioa, igande arratsaldean Sutegin

**H**iru bakarrizketa saioez gozatzeko aukera izango da igande honetan, euskaraz, eta Sutegiko auditorioan. Saiootako protagonistak hiru aktore izango dira, hiru emakume. Euren bizipenak arratsaldeko 19:00etatik aurrera hasiko dira kontatzen. Herriko bi emakumek parte hartu dute ekimen honetan. Berdintasun Sailarekin batera Ixabel Agirresarobe aritu da antolaketa lanetan, eta bestalde, bakarrizketetako bat Garbiñe Astiazaranek eskainiko du.

**NOAUA!** Nondik sortzen da bakarrizketok antolatzeko ideia?

**Ixabel Agirresarobe.** Billabonako II. Bakarrizketa lehiaketa egin zen, eta hara non usurbildar bat aurkeztu zen, Garbiñe. Ikustera joan nintzen bakarrizketa batzuk, bi gustatu zitzaizkidan gaiagatik eta egiteko moduagatik.

### GARBIÑE ASTIAZARAN

“Nire bakarrizketak umore puntua badu, baina baditu errealistak diren beste alderdi batzuk ere”

Pentsatu nuen, usurbildar bat hemen aurkeztuta, eta bakarrizketen gaia oso polita zela ikusirik, zergatik ez hirurak Usurbilen egin? Formatu egokia baita Sutegin egiteko. Clარი (berdintasun teknikaria) esan nion eta berak lagundu zidan ekimen hau aurrera eramaten.

**N. Hiru bakarrizketa desberdin, baina elkarren artean lotuak?**

**I. A.** Emakumeak izatez, bakoitzaren bizipenak entzuteko aukera izango da, nahiz ikuspuntu desberdinetatik kontatuko dituzten. Saioak euren emakume izatean daude oinarrituak.



GARBIÑE ASTIAZARAN, IXABEL AGIRRESAROBEBE ETA CLARA WOLFRAM ANTOLAKETA LANETAN ARITU DIRA.

Gero publikoak erabaki dezala zer iruditzen zaion.

**N. Zure bakarrizketak zer itxura du?**

**Garbiñe Astiazaran.** Neure bakarrizketa nahiko berezia da, hasteko bakarrizketa hau ez da nik sorturikoa, lagun batek idatzi zidan eta berak lagundu zidan hau sortzen. Emakume bezala neure mutil lagunarekin dudak harremanari buruzkoa da. Nolako mutila dudak kontatzen dut.

**N. Bakarrizketak, berez umorearekin lotzeko joera dago. Halakoa izango da zeure saioa, edo ikuspuntu horrekin hautsiko duzu?**

**G. A.** Umore puntua badu, baina baditu errealistak diren beste alderdi batzuk ere.

**N. Formatu desberdina izanik, herritarrentzako erakargarria izango da ezta?**

**G. A.** Erdaraz bakarrizketa pilo dago. Euskaraz orain hasi da eta aurrera doa. Jendea etor dadila ikustera eta ikusitakoa balora dezala.

**I. A.** Herrikoak bertako publikoari eskaintzeko lan egiten badu, horregatik bakarrik joan behar da ikustera. Ikusteko modukoa izango da, igandean afal aurretik. Eta gero afarian, denok baloratzen.

### Mailu Arruti eta Eneritz Artetxeren partehartzea

**NOAUA!** Antzerki mundutik ezagunak dituzue baita beste bi bakarrizketetako protagonistak?

**Ixabel Agirresarobe.** Bat Mailu Arruti da, lasartearra. Bestea Eneritz Artetxe bermeorra, aktore profesionala da eta bakarrizketa egiterako orduan sumatzen da komedia hori lantzen dela. Batzuetan ordea hain muturrera eramaten dira egoera gordin horiek, komedian kontatuta efektu bikoitza egiten duela. Nik behintzat Eneritz kasuan hori sumatu nuen, Mailurena oso komikoa da eta asko gustatu zitzaidan, eta Garbiñerena, ikusiko dugu. Dena orain ezin izango dugu kontatu.

## Herritarren parte hartzean oinarrituko den Berdintasun Kontseilua, sortzeko bidean da

**U**surbilen berdintasuna sustatzeko bilgune bat sortu nahi du alor honetako udal departamenduak. Herritarrei parte hartzera deitzen zaie, kontseilu honetan berdintasun kontuei buruzko iritzia eman, ekimen zehatzak proposatu eta hauen inguruan erabakitzeak aukera izango baitute. Igande arratsaldeko bakarrizketa saioen ostean, Sutegin bilgune honi buruzko aurkezpen txiki bat egingo da.

Alor honetan ere herritarrek ahotsa izan dezaten, euren parte hartzean oinarrituko den Berdintasun Kontseilua sortzeko asmoa du Udalak. Bilgunearen helburu nagusia, berdintasun teknikari Clara Wolframen esanetan, “berdintasuna sustatzea da”. Modu horretan, Kontseilua alor honen inguruko herritarren iritzia bildu eta erabakiak hartzeko gunea izango da, “aholku kontseilu bat” Wolframek dioenez, Udalaren eta herritarren arteko elkarlana bultzatuko duena.

Aniztasuna egotea beti aberasgarria denez, herritarrei parte hartzera deitzen die berdintasun teknikariak. “Gaiak pizten dion edonori gonbidapena egiten diogu, ongi etorriak izango dira denak”, dio. Urtean lautan biltzeko asmoz sortuko da Berdintasun Kontseilua. Irailean deituko da lehen bilera. Aipatu deialdiaren gonbita jaso edota kontseiluan parte hartu nahi duenak, Berdintasun teknikariarekin hartu emanetan jar dadila, berdintasuna@usurbil.net hel-



2010EAN AURKEZTU ZEN BERDINTASUN PLANA.

bidera e-mail bat bidalita edo Udalera deituta.

### CLARA WOLFRAM

Udal tekinariak dioenez, “interesgarriena ekimenok herritarren parte hartzearekin erabakitzea izango da”

### “Emakumea Pilotari”

Berdintasun teknikariak aurrera begirako beste bi ekimen ere iragarri ditu uda osterako. “Abian den auto estima eta tratu onaren tailerrak udazkenean ere jarraipena izango du. Bestalde, datorren ikasturterako Emakumea Pilotari ekimena martxan jartzen saiatzen ari gara”, adierazi du Wolframek. Aurrera begirako ekimenak badirela jakinik, berdintasun teknikariaren esa-

netan, “aurrerantzean, interesgarriena ekimenok herritarren parte hartzearekin erabakitzea izango da”.

### Urtea bete du

Berdintasun teknikaria lanean hasi zenetik urtea igaro berri da. Hamabi hilabeteotan herri honi buruz jaso duen inpresioa lerrootan laburbiltzen du Clara Wolframek: “zerbait berria sortzeak bere zailtasunak izaten ditu. Bestela, ekintzak egiten, eta hemengoak ez naizenez, herritarrak ezagutzen joan ahala, Usurbil oso herri berezia iruditzen zait, oso irekia, mugitua eta modernoak zentzu horretan. Jendeak herriarekin inplikazio handia du eta horregatik, ez zait zaila egin neure lane-rako aliatuak bilatzea. Oso anitza, plaza okupatzen duen herria dela iruditzen zait. Harritua nago Usurbilgo kale bizi-tzarekin. Hori beti polita da”.

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

**LATAILLADE** **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitzo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

## “Liburutruk”, liburuen berrerabilpena bultzatzeko ekimena martxan Udarregi ikastolan

**E**rabiliko ez diren testu liburuak behar dituenari ematea proposatzen du Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak. Berrerabilpena sustatzeko ekimen berria jarri du martxan bilguneak, “Liburutruk” izenekoa. Parte hartu nahi dutenek erabiliko testu liburuak ikasturtea amaitu baino lehen ikastolan utzi beharko dituzte.

“Mesedez, liburuak gorde nahi ez badituzue, utzi ikastolan, hurrengo urtean beste ikasleek erabili ahal izateko”, dei egiten dute Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkartetik. Mezua DBHko azken ikasturteko ikasleei eta euren senideei zuzendua dago, guraso talde batek, Hitz-Ahok eta irakasleek lagunduta, udako oporraldietara joan aurretik “Liburutruk”

ekimen berria martxan jarri baitute. Liburuen berrerabilpena bultzatzea da helburua, eta zentzu horretan, “Liburutruk”, ikasleek erabiltzen dituzten testu liburuak ahalik eta ikasturte gehienetan erabiliko direla bermatzen duen sistema gisa jaio da. Hainbat balore garatuta seme-alaben heziketa hobetzea, familiek urtero izan ohi dituzten gastu ekonomikoak gutxitzea eta paperaren kontsumoa eta hondakinaren sorrera murriztuz, ingurumena zaintzea bultzatu nahi dute antolatzaileek.

### Batzarrean hartutako erabakia

Ekimena martxan jartzeko erabakia joan den maiatzaren 26an Udarregi ikastolan burutu zuten urteroko batzarrean hartu zen. Lau egun beranduago, ekimenaren nondik norakoak aurkeztu eta zalantzak argitzeko bilera



TESTU-LIBURUAK PARTEKATZEA DA SISTEMA HONEN HELBURUA.

burutu zuten ikastolan. Parte hartzaileekin ekaina amaieran beste bilera bat egiteko asmoa dute ekimen berri honetako eragileek. “Liburutruk”-en parte hartu asmo dutenek ikasturte honetako azken egunean dute hitzordua. Urtean zehar erabili dituzten liburuak, behar ez dituztenak, gehiago erabiliko ez dituzten horiek bere ikasgelan utzi beharko dituzte.

Datu gehiago: [hitzaho@udarregi.com](mailto:hitzaho@udarregi.com)

## Haur jaio berria datorrenerako, gurasoek eta hezitzaileek egokitzen joateko aukera dute Haur Eskolan

**H**aur bat jaiotzeak inguruan eragiten dituen aldaketetara ohitzen joateko egokitzapen ikastarora eskaintzen die Haur Eskolak guraso eta hezitzaileei. Antolatzaileek dakitela, Europa mailan esperientzia bakarra da Haur Eskolan martxan dagoena. Hilero saioak antolatzen dituzte Haur Eskolan bertan. Datorrena ekainaren 13an burutuko da. Haurra bidean duten, edo jaio berriak dituzten herriko guraso orok parte har dezake bilkuran.

Joxe Ramon Mauduit psikologoa gidari duen egokitzapen egitasmoa antolatua du Haur Eskolak. Helburua, guraso izango diren amak eta aitak ueña iristen denerako haurra jaiotzen denerako prest izateko laguntza eskaintzea da. Zalantzak argitzeko, beldurrak partekatzeke, eta lasaitzeko egokitzapen prozesua eskaintzen dute Kalezarko eraikine-

an. Prestakuntza guztia taldean burutzen dute gurasoek, egoera berean diren herritar gehiagorekin eta hezitzaileekin batera. Hilean behin elkartu ohi dira Kalezarko Haur Eskolan bertan. Ekimena irekia da, Haur Eskolako gurasoentzat bakarrik ez, herriko gainerako aita amek ere parte har dezakete.

Parte hartzean oinarrituriko bilgunea baita Haur Eskolak eskaintzen duena. Bertan, norberak sentitzen duena, bere esperientzia konta dezake, konfidentzialtasun osoz.

Egokitzapenari loturiko ekimen hau urteak daramatzate antolatzen Haur Eskolan. Lehengo urtera arte, haurra jaio eta Haur Eskolan hasi berritan burutzen zuten egokitzapen prozesua. Iaztik ordea, haurra jaio baino lehenagotik egokitzapen prozesua burutu daiteke. Hartara, orain arte aipatutakoaz gain, gurasoek eta haurraren hezitzaile izango direnek elkar ezagutzeko aukera dute,



HITZORDUA EKAINAREN 13AN IZANGO DA, 18:00ETAN.

haur bakoitzak dituen gaitasunak behar bezala bideratzeko bere heziketaz arduratzen diren guztien arteko elkarlana komenigarria baita proiektuko eragileentzat. Egitasmoari buruzko zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

### Egokitzapen egitasmo saioa

Eguna: ekainak 13, astelehena.

Ordua: 18:00.

Tokia: Haur Eskola.

## Egindakoa erakusteko garaia

**J**ose Antonio Gorgojo herritarren margolanak ikusteko aukera dago, igandera arte Sutegiko aretoan. Erakusketa arratsaldez egongo da zabalik: 18:00-20:00 artean. Ekaina amaitu artean, gune berean beste hiru erakusketa ere zabalduko dira.



ARTZABALGO PINTURA IKASTAROKO  
LANAK IKUSGAI JARRIKO DITUZTE  
SUTEGIN.

### Artzabalgoen margo lanak

Artzabal Zahar Egoitzan antolatu den pintura ikastaroko ikasleen lanak ikusteko aukera izango da ekainaren 16tik 19ra. Egunaren arabera, erakusketa bisitatzeko ordutegia ezberdina izango da: ostegun eta ostiralean (ekainaren 16 eta 17an), 17:00-20:00 artean; larunbata (ekainak 18), 10:00-13:00 / 17:00-20:00 artean; eta igandea (ekainak 19), 10:00-13:00 artean. Erakusketa Sutegiko aretoan zabalduko dute.

### Zirriborro tailerrekoak

Ohi denez, Santixabeletan ikasturtean zehar Zirriborro tailerreko ikasleek sortu dituzten pintura eta eskulanak ezagutzeko aukera izango da, Sutegiko erakusketa aretoan, jaiek iraun artean; hau da, ekainaren 30etik uztailaren 3ra. Goizez, 11:00-13:00 artean, eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean.

## Lanbide Prestakuntza Programetan

### ikasi dutena jendaurrean erakutsiko dute

**H**asierako Lanbide Prestakuntza Programetan, bi lanbide jorratzen dira: ile-apainketa laguntzailea batetik, eta sukaldari-zerbitzari langilea bestetik. 15-18 urte bitarteko 52 gazte aritu dira azken ikasturtean, Atalluko ikasgeletan. Egindako lana hobeto ezagutarazi asmoz, erakusketa bat antolatu dute Sutegin.

Erakusketak bi formatu izango ditu: argazkiez osatutako panelak ipi-

niko dira Sutegin baina horrekin batera, erakustaldi praktikoak egingo dituzte. Erakusketara gerturatzeko direnek, "manikura egin edota pintxo gozoak probatzeko parada izango dute".

Erakusketa bitxi hau hiru egunez luzatuko da: ekainaren 20an astelehena, ekainaren 21ean asteartea eta ekainaren 22an asteazkena, Sutegin.

Eta ordutegia hauxe izango da: goizeko 11:30etik 13:30ak bitartean.



ARGAZKIAK IKUSI ETA IKASLEEN PINTXOAK DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA.

### Lanbide Eskola, aurre matrikulazioa

**O**stiral honetan, ekainaren 10ean itxiko da 2011-2012 ikasturterako aurre matrikulatzeko epea Lanbide Eskolan. Idazkaritza honako ordutegian egongo da irekia: astelehnetik ostegunera, 9:00-14:00 artean goizez, eta 16:00-18:00 artean arratsaldez. Ostiralean, 9:00-14:00 artean. [www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com) / 943 364 600.

### Zumarte Musika Eskolako kontzertuak

**M**atrikulazio epea itxi ostean aurretik, ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte Zumarte Musika Eskolako ikasleek.

#### Ekainak 20, astelehena

19:00 Talde instrumentalen emanaldia Sutegin.

#### Ekainak 21, asteartea

18:30 Abesbatzen emanaldia San Esteban elizan.

#### Ekainak 22, asteazkena

18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegin.

#### Ekainak 23, osteguna

18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi ikastolan.

### Udako txokoak Aginagan

**4**-12 urte arteko gaztetxoei zuzendua, uztailean. Ia lau orduz burutuko dira, eta goizez, 9:30-13:00 artean. Izen ematea zabalik dago ekainaren 17ra arte. Informazio gehiago: 608 264 043 (Maite) edo 600 484 948 (Manuel).

### Errioa garbitzeko deia

**L**arunbat goizean, 10:00etan Zubietako Aliriko zubian elkartuko dira. Ori ibaian zehar bizpahiru orduz piraguan bilketa lanak burutuko dituzte. Diotenez, denetarik aurkitu izan dute, plastikozko hondakinak bereziki. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: 660 395 094.

## Ekitaldi nazionala eta kontzertu gaua larunbatean, "Gazte1+ez!" plataformaren eskutik

**E**uskal Herriko gazteriak bizi duen errepresioa salatu eta atxiloketa zein espetxeratze gehiagorik ez egotea eskatzeko mobilizazio astea antolatu du "Gazte1+ez!" plataformak. Larunbateko kontzertuarekin amaituko da mobilizazio astea.

Astelehenaz geroztik ostiralera arte, Donostiako EHUko Ibaetako campusean itxialdia burutzen ari dira hogeitik gora gazte independentista. Tartean hainbat ekitaldi deitu dituzte; hitzaldiak, elkarretaratzeak... Mobilizazio astea Usurbilen borobilduko du "Gazte1+ez!" plataformak.

### Ekitaldiak arratsaldetik

Larunbatean, ekainak 11, 18:30etan ekitaldi nazionala burutuko da. Eta gaueko 21:30etatik aurrera kontzertu gaua, Esne Beltza,



SARRERAK ALDEZ AURRETIK DAUDE SALGAI TXIRIBOGAN ETA IRRATIN.

Betagarri, Kaotiko, Vendetta eta Ze esatek! taldeen eskutik. Txosnak ere egongo dira. Kontzertuak iragartzeko jarri dituzten karteletan adierazten

denez, sarrerak aldeaz aurretik Txiribogan eta Irratin eskura daitezke, 8 euroren truke. Bestela, egunean bertan, 12 eurotan.

## Guraso bilera, ekainaren 16an Gaztelekuan

**H**ezitzaileak eta gurasoak elkar ezagutzeko bilera deitu dute Gaztelekuko arduradunek. Ekainaren 16an izango da bilera, 18:00etan Gaztelekuko egoitzan bertan.

Bileraren helburuak zeintzuk diren ere aurreratu dute: "hezitzaileak eta gurasoak elkar ezagutzeko, Gaztelekua erakusteko, urtean zehar egindako

ekintzei buruzko argazkiak ikusteko eta ondoren luntxa eta ping-pong partida animatzen direnekin". Asmoa, guraso eta hezitzaileen arteko biltoki bat sortzea da. "Elkarrizketa gune bat sortu nahi dugu, elkarren arteko iritzi trukaketa egiteko, Gaztelekuko heziketa proiektua nerabeek dituzten beharretara egokitzen joan dadin. Honetarako ezinbestekoa da gurasoen iritzia jakitea".



GAZTELEKUKOAK, FRONTOIAN EGINDAKO JOLAS BATZUETAN.

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitaratekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak  
EGUZKITZA, 4 - 943 370 344

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

**izAgirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelektrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

## Endika Abril errebote txapelketako finala jokatu du Zubietako taldeak

**E**ndika Abril errebote txapelketa jokatu ohi da Gipuzkoako plazetan, abuztua eta azaroaren artean. Lehengo urtean, eguraldi txarra tarteko, ezinezkoa izan zen txapelketa amaitzea. Udaberri honetara atzeratu zuten azken fasea. Finala igande honetan jokatu da Villabonako plazan eta, aspaldiko partez, Zubietako taldea finalean izango da.

Finalerdietan, Villabonako Behar Zana taldea gaudituz zuten, 13-5 azken emaitza. Horri esker, igande honetan



KAPITO HARRI TALDEAREN AURKA, IGANDE HONETAN VILLABONAN.

finalean izango dira. Villabonako plazan izango da finala, eguerdiko 11:30etik aurrera, eta arerioa Ustaritzeko Kapito Harri taldea izango da.

## Kirol Patronatuak udako ekintzak antolatu ditu

8-14 urte arteko gaztetxoei zuzendutako kirol ekimen desberdinak antolatu ditu Kirol Patronatuak uda parteko. Igeriketa, herri kirolak, pilota palaz, tenisa, badminton, mendi bizikletekin txangoak, psikomotrizitatea material ezberdinekin, jolasak, txapelketak... Ekimenotan izen emateko epea ekainaren 20ra arte zabalik egongo da.

Taldeak asko jota 12 edo gutxienez

zazpi partaiderekin osatuko dira. Ikastaroak uztailaren 4tik 15era eta 18tik 29ra burutuko dira, goizez eta hiru orduz, 10:00-13:00 artean. Txanda hauetako batean izen emateko 65,65 euro ordaindu beharko dute abonatuak, bi txandetan izena eman nahi dutenek aldiz, 131,30 euro (abonatuak). Informazio gehiago, Oiardo Kiroldegian bertan, 943 372 498 kirolpat@usurbil.net helbidean.

## Pilotaren harrobia



**P**asa den igandean, Ikastolaren Eguna ospatu zen. Ekitaldi ugari izan ziren, tartean, Pilota Txapelketako finalak. Argazkian dira txapelketan parte hartu zuten pilotari gazteak.

Pilota kontuekin jarraituz, larunbatean jokatu zen Herri Arteko txapelketan Oiartzunek irabazi zuen. Mariskadan, 198 izan zen zenbaki saritua eta irabazlea Jose Ramon Furundarena izan zen.

## Xabier Bengoetxea bigarren izan da Euskadiko Txapelketan

**D**enboraldi bikaina osatzen ari da Xabier Bengoetxea txirrindularia. Junior mailan, erlojuaren aurkako lasterketan, bigarren izan da Buruntzazpiko Txirrindulari Eskolakoa.



XABIER BEGOETXEA BIGARREN IZAN DA ERLOJUAREN AURKAKO LASTERKETAN.

## Pilota Txapelketa, azken laurdenak

### EKAINAK 11 LARUNBATA

11:00etan Aginagan

#### Jubenilak

Gallurralde-Erostarbe / Arizmendi-Inda  
(Urretxu) (Baztan)

#### Nagusiak

Urmeneta-Aranalde / Muguruza-Jauregi  
(Añorga) (Usurbil) (Bergara)

### EKAINAK 12 IGANDEA

11:00etan Aginagan

#### Jubenilak

Manzisor-Otegi / Goikolea-Imaz  
(Antiguo) (Oiartzun)

#### Nagusiak

Urbieta-Galarraga / Jauregi-Mendinueta  
(Bidegoien) (Añorga)





## Agenda!

**Ekainak 10 ostirala**

**Elkartasun afaria Askatasuna plazan**, 21:00etan. Txartelak salgai Txiribogan eta Aizpuruan.

**Ekainak 11 larunbata**

- "Gazte1+ Ez", 18:30ean ekitaldia eta 21:30ean kontzertua frontoian.

## Goardiako farmaziak

**Ekainak 9, osteguna**

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 10, ostirala**

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Ekainak 11, larunbata**

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 12, igandea**

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 13, astelehena**

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 14, asteartea**

Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 15, asteazkena**

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 16, osteguna**

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 17, ostirala**

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 18, larunbata**

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 19, igandea**

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

\* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Aizpurua, Latsunbe Berri, 11, Hernani

Telefono zenbakia: 943 336 077.

## Elkartasun afari herrikoia ostiralean, presoen eskubideen alde

**G**atazka politikoa konpontzeko bidean, preso eta iheslarien egoera konpontzea urgentziazkotzat jotzen du "Egin dezagun bidea" taldeak; gaixoak etxeratzea, edota bizi arteko zigorreri loturiko neurriak indargabetzea, euren eskubideak errespetatzea alegia. Bidea pausoz pauso jorratzen joan behar dela adieraziz, elkartasun ekitaldiak antolatu ditu bilguneak datozen eguntarako.

### URIBE ETA XOMORRO

"Legeria normalki aplikatuta, biek etxean beharko lukete aspaldi;"

Egin dezagun bidea ekimenetik adierazi dutenez, "zu ere zatoz. Xomorro, Ramon, Ximio, Jokin, Olatz, Patxi eta Xabier eta euskal preso eta iheslari oro gure artera ekartzeko erronka dugu aurrean, irabazi behar dugun erronka, irabaziko dugun erronka", adierazi dute antolakuntzatik.

Gogorarazten dutenez, preso eta iheslarien egoera konpontzea gatazka politikoaren konponbide orokorraren atal funtsezkoa da.

### Pintada bitxiak agertu dira

Igitai ikur batekin "belar txarrak errorik" esaldia eta antzekoak irakur daitezke hainbat tokitan. Zurrumurruak indar handia hartu dute azken egunotan; nekazarien iraultza ote den diote batzuk, antolatutako kanpaina bat ote den ere esaten hasiak dira... Denborak argituko ote du pintada hauen atzean zer dagoen?



IGANDEAN MANIFESTAZIOA EGINGO DA BILBON, 12:30EAN GUGGENHEIMETIK ABIATUTA.

### Hitzordua

**Ekainak 10, ostirala**

21:00 Elkartasun afari herrikoia Askatasuna plazan. Txartelak salgai Txiribogan eta Aizpurua okindegian, 20 euro eta 10 eurotan.

**Ekainak 12, igandea**

Egun osoko ekimena Bilbon, "Eskubide guztiekin, euskal presoak Euskal Herrira" lemapean.

**Ekainak 19, igandea**

18:00 Bizi arteko espetxe zigorrari buruzko hitzaldia Sutegin. Hizlariak: Ainhoa Baglietto abokatua eta preso ohi bat.



**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
**659 602 789**  
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**





**KIKI ETA KOKO PAILAZOAK**

**PLIS PLIS  
TXALO  
ETA  
JOLAS**



**Ekainak 16, 17:00h  
frontoian**

# Ekainean Hurbilagorekin



Bi lagunentzako 20 afari oparituko ditu Hurbilagok Ekainean Hurbilago txartelarekin ordaintzen duten bezaloen artean

